

KONTZEPTU AHANTZIAK

Xabier Leteri irakurri ahal izan diogu EGUNKARIAK egindako elkarrizketan abertzaletasuna eta nazionalismoa ez direla gauza bera: «Niretzako, abertzaletasuna eraikuntza bat da; solidaritate bat; haurridego bat; elkarrekin gauzak hobea egotea; eta lurralde ederrago bat, kultuago bat, humanoago bat eraikitzen saiatzea. Nazionalismoa, berriz, funtsezko, jatorrizko ezaugarri batzuetan oinarritzen den pentsaera bat izango litzateke.» Lehen ere askotan entzuna nion horixe bera duela 20 eta 30 urteko politikan buru-belarri zebilen bati. Ezker abertzalekoek behin eta berriz egiten omen zuten puntualizazio hori, nazionalismoaren arriskuak seinalatuz.

Abertzaletasunaren eta ezkerreko balioen arteko erabateko lotura ere etengabe zabaltzen zuten lau haizetara: «*Batek gose diraueno, ez gara gu asetuko; bat inon loturik deino, ez gara libre izango; ... inork ez inor menpekorik har, nor bere buruan jabe; herri guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe*», Laboaren kantuan. Hitzik gabeko ekintzak pentsatzerakoan balio hauen bahetik pasatzen ziren aukera ezberdinak. Garrantzitsua zen ekintzak balioen arabekoak izatea eta halakoak zirela herriari erakustea, borrokan aurrera egin ahal izateko.

Gaur, nik dakidala, 'nazionalista' 'abertzale'-ren sinonimotzat darabilte ezker abertzalearen gidariak. Eta ezkerreko balioak ahantzi samarrak dituzte, inoiz ikasi badituzte. Ez daukate ezkerreko diskurtsu sinesgarririk. Euren ekintzabide nagusiak ez du ezkerreko balioen defentsarik erakusten; agian, teoria gutxietsi eta praktika, helburu estrategikoetan eta justiziazko balio unibertsialetan oinarritu ordez, taldeko moral erlatibistan eta epe motzeko analisi utilitaristetan oinarritzen dutelako. Hauteskunde, aurrekontu, parlamentu, menia, preso, polizia, errefuxiatu eta abarrekoek buruzkoa baino gogoeta sakonagoa behar du ezker abertzaleak. Kontzeptu ahantziei indar berriz heldu ezean, nekez egingo du inoiz aurrera. Igoal horregatixe dabil orain noraezean edo.